

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **49/2020 Mozioa, uztailaren 15ekoa, Arabako ardoa, txakolina eta sagardoaren sektoreari babesa emateko**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko uztailaren 15ean egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

49/2020 Mozioa, uztailaren 15ekoa, Arabako ardoa, txakolina eta sagardoaren sektoreari babesa emateko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote, UAGAren eta ardogintzaren eta sagardogintzaren sektoreko elkarte eta eragileekin elkarlanean, ardoaren eta sagardoaren banaketarako kanal komertzialen eta merkatuen bilakaeraren etengabeko jarraipena eta analisia egiteko, baita koronabirusak ekoizleengan eta upategietan izango dituen ondorio ekonomikoena ere.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegorako sustapen-kanpainak martxan jar ditzala, Arabako ardoen ezagutza eta kontsumoa bultzatzeko, horretarako ardo horien jatorria, tipikotasuna eta ezaugarri bereziak azpimarratuz.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote, Eusko Jaurlaritzarekin, beste erakunde batzuekin eta ekoizpen- eta merkaturatze-sektorearekin elkarlanean, neurriak hartzen jarraitzeko, biltegiatze pribatuaren eta ekoizpen-kontrolaren bidez stockak murriztu ahal izateko, bai eta merkaturatze ardoaren prezioei eusteko merkataritza praktikak ezarri, nekazarien errentagarritasuna mantendu ahal izateko prezioak dituzten kontratuak sustatuz, kanal komertzial berri eta alternatiboak ireki eta merkatuak etorkizunean izango duen bilakaeraren eta sektorearen beharrezan araberako neurriak hartuz ere.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote beste erakunde batzuekin lankidetzan jarduteko, ostalariekin, jatetxeekin eta turismoaren sektorearekin sinergiak eta lankidetzak-estrategiak ahalbidetzeko, Araba eta, bereziki, Arabako Errioxa enoturismoarako helmuga gisa sustatze aldera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 15a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**